



Arartekoaren 2014R-2041-14 Ebazpena, 2014ko azaroaren 17koa. Horren bidez, URA Uraren Euskal Agentziari gomendatzen zaio lurritako errotaren egoeraren gaineko espedientearen egoeraren berri eman dezan eta ingurumen informazioari buruzko eskaera bati erantzun diezaion.

Aurrekariak

1. XXXX elkarteak jakinarazi digu URA Uraren Euskal Agentziak ez duela erantzunik eman Ugaldetxo auzoan (Oiartzun) emakida hidrauliko bat iraungi dela adierazteko espediente bat ofizioz abiarazteko eskabide baten inguruan.

Elkarteak azaltzen du 2013ko abuztuaren 18ko eskabidearen bitartez Uraren Euskal Agentziari eskatu ziola lurritako errotaren emakida hidraulikoa iraungi dela adierazteko espediente bati ekin ziezaion eta Oiartzuneko Ugaldetxo auzoan presa txiki bat eraits zezan.

Eskabidean adierazitako arrazoa emakidadunaren erabilera falta zen duela urte batzuetatik hona. Beste alde batetik, gaur egunean bertan zegoen presa txikia eraisteko eskatzen zuen, eraikuntza horrek berekin zekartzan ingurumen eraginak saihestearren.

XXXX elkarteak eskabide hori berretsi du birritan (2013ko azaroaren 8an eta 2014ko ekainaren 1ean). Igarotako denbora gorabehera, elkarteak adierazten du gaiari buruz ez duela erantzunik edo jakinarazpenik jaso.

Halaber, erreklamazioan aipatzen du, 2014ko urtarrilaren 19an, bi espedienteren ingurumen informazioa eskuratzeko eskatu dutela. Alde batetik, lurritako presa txikia iraungitzeko ofizioz hasi beharreko espedientearen egoerari buruzkoa. Beste aldetik, Oiartzun ibaian Fanderiako urtegia berreraikitzeo obrak baimentzen dituen espedienteak.

Eskabidean uste du informazio hori ingurumen arloko informaziotzat hartu behar dela, natur inguruneari eragiten diolako, kasu honetan jabari publiko hidraulikoari, bai eta hura ingurumenaren aldetik babesteko, zaintzeko edo defendatzeko neurri edo jarduera administratiboei ere. Horrela bada, ingurumen informazioa eta ingurumenaren arloko partaidetza publikoa eta justizia eskuratzeko eskubideak arautzen dituen uztailaren 18ko 27/2006 Legea aipatzen du.

Elkarte horren iritziz, eskabidea egin zenetik bederatzita hilabete baino gehiago igaro arren, oraindik ere ez dute inolako erantzunik jaso egindako informazio eskaeraren inguruan.

2. Erreklamazio hau izapidetzea onartu denez gero, URA Uraren Euskal Agentziari eskatu diogu ingurumen arloko informazioa eskuratzeko eskabideari erantzuna ematearren jarraitutako jarduketan gaineko informazioa eta, bereziki, interesdunei igorritako jakinarazpenen gainekoa.





URA Uraren Euskal Agentziak txosten bat igorri digu (2014ko azaroaren 7an jasotakoa). Agiri horretan ordura arte jarraitutako jarduketa guztiak azaltzen dira.

Fanderiako urtegia berreraikitzeke informazioa eskuratzeari dagokionez, URAk jakinarazi digu 2014ko ekainean elkarteari eman zitzaiola Fanderiako urtegiari emandako soluzioa baimentzen zuen ebazpenaren kopia; gainera, horrekin batera dokumentazioa jasotzen zuen CD bat erantsi zen.

lurritako errotaren emakida hidraulikoaren iraungipen espediente bati ekiteko eta presa txikia eraisteko eskabideari dagokionez, URAk jakinarazi digu zeintzuk izan diren emakidadunari ezarritako baldintzak beteko direla eskatzeko jarraitutako jarduketak. Zehatzago, URAk zehaztu du 2013ko azaroaren 28an errotaren egoerari buruzko kontsulta espediente bati ekin diola. Urtarrilean inguru horretako ikuskatzaileari txosten bat eskatu zaio instalazioen kontserbazio egoerari buruz.

Edozein kasutan ere, URAREN txostenean ez da jasotzen elkarteari lurritako errotaren espedientearen tramitazioaren inguruan erantzun zaionik.

Informazio hori ikusirik, kexaren egileak adierazitako gainerako zirkunstantziak aintzakotzat harturik eta haien edukiak azterturik, honako gogoeta hauek jakinarazi nahi dizkizut.

Gogoetak

1. XXXX elkartearen kexa honen gaia sortu da URA Uraren Euskal Agentziak lurritako errotaren emakidaren iraungipen espedientea ofizioz hasteko egindako eskaerari erantzunik eman ez diolako.

Eskaera hori 2013ko abuztuan egin zen; gainera, espedientearen gaineko informazioa eskatu zen bi aldiz.

URAk emandako erantzunak men egiten die emakidaren egoeraren inguruko informazio espediente baten instrukzioari eta errotaren emakidan ezarritako baldintzak betetzeko agin-dei bati.

Edozein kasutan ere, Arartekoak ez daki erreklamazioaren eskaerari erantzun zaion ala ez.

2. Oro har, kontuan hartu beharra dago herri administrazioek, herritarrekin dituzten harremanetan, beren zeregin publikoen egikaritzapena bideratu behar dutela administrazio prozeduraz baliatuz. Jarduketa administratiboaren molde horren arrazoiak xede bikoitzari erantzuten dio: alde batetik, administratuen eskubideen berme gisa erabil daiteke eta, beste aldetik, interes publikoaren bermea ere bada.





Administrazio prozedura orokorrak ezartzen du jarraibideak aintzakotzat hartu behar direla administrazio jarduketa antolatzen, izapidetzeko eta fiskalizatzeko.

Izapide administratiboen existentziaren bermea eta herritarrari erantzuteko bermea Espainia Konstituziotik ondorioztatzen da (103.1 eta 105. artikulua) eta herritarrek administrazio egokia izateko eskubidearen zati dira; azken erabaki hori Lisboako Itunak sartutako Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutunaren 41. artikuluan jasota dago.

Administrazio egokia izateko eskubide horren barruan, honako hauek aipa ditzakegu: aurkeztutako idatziak jaso izanaren adierazpena, ofiziozko bultzada eta aurkeztutako gaien beren-beregi erantzuteko betebeharra. Halaber, herri administrazioek pertsonen jakinarazi behar dizkiete zeintzuk diren euren asmoaren inguruan egikari ditzaketan eskubideak.

Hori guztia dela eta, herritarren erreklamazioei erantzun administratiborik eman ezean, horrek adierazi nahi du administrazioaren jardunbidea ez dela ohikoa.

- 3 Zentzu horretan, ageri-agerian dago Uraren Euskal Agentziari zuzendutako eskabide bat egon dela eta eskaera horretan emakida hidraulikoaren iraungipen espedientea hasteko eskatzen dela, erabilera faltagatik eta Oartzun ibaiaren ibilgua ingurumenaren aldetik hobetzeko eta zaintzeko interes publikoagatik.

Eskabide horrek tramitazio bat dakar, betiere aipatutako baldintzei jarraituz eta Urei buruzko ekainaren 23ko 1/2006 Legeak eta Jabari Publiko Hidraulikoaren Arautegiak ezarritakoarekin bat etorritik.

Kasu honetan, URAREN txostenak egun horretara arte aurrera eramandako alde aurretiko izapideak islatzen ditu elkartearen eskabideari dagokionez.

Hala eta guztiz ere, ondoren egindako zenbait erreklamazio egon arren, ez zaio elkarteari erantzunik eman gai honen inguruan, nahiz eta horretan saiatu eta espedientearen tramitazio egoerari buruzko informazioa eta argibideak beren-beregi eskatu.

Gogorarazi beharra dago 30/1992 Legearen 35 a) artikulua aintzatesten duela interesdunaren izaera dutenek prozeduren tramitazio egoeraren berri izateko eskubidea dutela edozein momentutan. Eskubide horrek berekin dakar interesdunek jarraitutako izapideen gaineko informazioa eskatu ahal izatea; gauzak horrela, halakoetan administrazioaren betebeharra da eskatutako informazioa helaraztea.

Beste alde batetik, eskabideak honako hau ere eskatzen zuen: errotako eta presa txikiko emakida hidraulikoari buruzko ingurumen dokumentazioa eta informazioa.





4. Gai honi gagozkiorarik, elkarteak eskatutako informazioa ingurumen informazio gisara sailkatzen da, betiere Uren Legearen testu bategina onesten duen uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzazko Errege Dekretuaren 15. artikulua ezartzen duenarekin bat etorritik.

Ingurumen informazioa eta ingurumenaren arloko partaidetza publikoa eta justizia eskuratzeko eskubideak arautzen dituen uztailaren 18ko 27/2006 Legearen 2.3.d) artikulua halaxe sailkatzen du ingurumen elementuen egoerari buruzko dokumentazio idatzia –urak eta jabari publiko hidraulikoa–, bai eta elementu horiek babestera eta ingurumenari buruzko legeria betearaztera zuzendutako neurri administratiboak ere.

27/2006 Legearen 10. artikulua ezartzen du zeintzuk diren informazio eskabideak izapidetzeko prozedura eta epea. Eskatutako informazioa behar bezain zehatz izan ezean, *"agintaritza publikoak eskatzaileari eskatuko dio hori zehazteko, eta laguntza emango dio informazio eskaera ahalik eta azkarren zehazteko"*.

Epeari dagokionez, honako hauxe aipatzen du: *"ebazteko eskumena duen agintaritza publikoak eskatutako ingurumen informazioa emango du edo eskatzaileari jakinaraziko dio zeintzuk diren informazio hori ukatzeko arrazoiak, betiere eskatzaileak zehaztutako egutegia kontuan hartuz, betiere beranduen jarraian zehazten diren epeen barruan:*

1.- Oro har gehienez ere hilabeteko epean, betiere eskabidea ebazteko eskumena duen agintaritza publikoaren erregistroan jasotzen denetik zenbatzen hasita.

2.- Oro har gehienez ere bi hilabeteko epean, betiere eskabidea ebazteko eskumena duen agintaritza publikoaren erregistroan jasotzen denetik zenbatzen hasita, baldin eta informazioaren bolumenak eta konplexutasun handiek arestian aipatutako epea betetzea ezinezko bihurtzen badute. Kasu horretan, eskatzaileari jakinarazi behar izango zaio gehienez ere hilabeteko epean erantzuteko denbora-tarte hori handitu dela; era berean, jakinaraziko zaio zeintzuk diren hori justifikatzen duten arrazoiak.

Laburbilduz, ingurumen arloko informazioa eskuratzeko aukera azkar gauzatu behar da, lehentasunez. Horretarako, legeriak ebazpen epe batzuk ezarri ditu, betiere hilabeteko epea gairatu behar ez dutenak erantzuna emateaz arduratzen den erregistroan eskaera jasotzen denetik zenbatzen hasita, baldin eta beste hilabeteko bateko beren-beregiko luzapenik ez badago (halakorik gertatuz gero, hori ere jakinaraziko zaio eskatzaileari).

Epe laburrak ezartzen dira informazioa eskuratzeko eskubidearen izaera instrumentala kontuan hartuz. Izan ere, administrazioaren erantzunaren berehalakotasuna funtsezko premisa bat da partaidetzarako edo ingurumen arloko justiziarako gainerako eskubideak egikaritu ahal izateko.





Hori dela eta, herri administrazioek beharrezko baliabideak jarri behar dituzte ingurumen artoko informazio zerbitzua bete dadin, betiere erantzuna emateko epe luzaezin horien barruan.

Kasu honetan, aurreko epe hori guztiz gaindituagatik ere, URA Uraren Euskal Agentziak igorritako jakinarazpenean ez da jasotzen ingurumen arloko informazio eskabideari emandako erantzunik.

Hori guztia dela eta, erakunde hau sortzeko eta arautzeko otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 11 b) artikulua ezarritakoarekin bat etorriz, honako gomendio hau egiten da:

GOMENDIOA

Uraren Euskal Agentziari gomendatzen zaio XXXX elkarteari lurritako errotaren emakida hidraulikoaren iraungipen espedientearen tramitazio egoeraren berri emateko, bai eta Oiartzuneko Ugaldetxo auzoko presa txikiaren eraispenari buruz informatzeko ere.

Halaber, honako hau ere gomendatzen zaio: lurritako errotaren egoeraren gainean jarraitutako informazio izapideei buruzko ingurumen informaziorako eskaerari eta emakida hidraulikoan ezarritako baldintzen betetze-mailari berenberegiz erantzuteko. Hori guztiori, ingurumen informazioa eta ingurumenaren arloko partaidetza publikoa eta justizia eskuratzeko eskubideak arautzen dituen uztailaren 18ko 27/2006 Legeak ezarritakoarekin bat etorriz.

